

LABURPEN EXEKUTIBOA



# Gure etorkizuna elkarrekin eraikitzen

GIPUZKOA 2020-2030 ESTRATEGIA

TXAKEL - 3688-010

# G+20 PROZESUA

G+20 prozesua ondorengo txostenen bidez artikulatu da:



## I Gipuzkoako Diagnostiko Estrategikoa

“Gipuzkoako Diagnostiko Estrategikoa” I. dokumentua Arantzazun aurkeztu da (Gandiaga topagunean) 2009ko irailaren 24an, G+20 prozesuaren I. fasean parte hartu duten pertsonen osoko bileran.



## II Gipuzkoa 2030 erronka-eszenatokiaren oinarriak

“Gipuzkoa 2030 eszenatoki erronkarren oinarriak” dokumentua Donostiako Kursaal kongresu jauregian aurkeztu zen 2010eko urtarrilaren 29an, “Etokizuneko Gipuzkoa marrazten” jardunaldian.



## III Gipuzkoa 2020-2030 Estrategia. Gure etorkizuna elkarrekin eraikitzen.

“Estrategia proposamena” III. dokumentu hau Donostian aurkeztzen da Kursaal Kongresu Jauregian, 2010eko uztailaren 1ean, “Gure etorkizuna elkarrekin” ekitaldian. Azken dokumentu hau 2010aren amaierarako egin eta banatuko da.

# GIPUZKOA 2020-2030 ESTRATEGIA

“Gure etorkizuna elkarrekin eraikitzen”

## LABURPEN EXEKUTIBOA

### Edukien aurkibidea

<b>1 Gipuzkoa+20, ikaskuntza-prozesua</b>	4
<b>2 Estrategiaren helburuak</b>	5
<b>3 Bizileku dugun munduaren konplexutasuna eta erronkak ulertze aldera</b>	6
<b>4 Etorkizuna gure balio bereizgarriak oinarri hartuta eraikitzea</b>	11
<b>5 Gipuzkoa 2020-2030 estrategiaren proposamena</b>	14
• Aldaketa ekonomikoa	15
• Aldaketa demografiko-soziala	15
• Ingurumenaren eta lurralde-antolamenduaren aldaketa	16
• Ikaskuntzaren eta ezagutzaren aldaketa	17
• Esparru publiko-politikoaren aldaketa	18
• Indarkeria politikoa amaiaztea. Bakearen lorpen historikoa.	
Euskal autogobernuan sakontzea	18

## 1 GIPUZKOA+20, IKASKUNTZA- PROZESUA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Estrategia Bulegoak epe luzerako estrategia-proposamen bat aurkeztuko du 2010eko uztailaren 1ean Kursaal-en. Haren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren ikuspegi berri bat sustatu nahi du, eta 2020-2030 aldirako estrategia berri bat abiarazi, Foru Aldundiaren beraren aginduari jarraituz: *“Gogoeta estrategikotik abiatuta, epe luzerako planifikatuko du, eta Gipuzkoaren etorkizunerako ikuspegia landuko du”*<sup>1</sup>.

Gipuzkoa 2020-2030 Estrategiaren aurkezpen publikoa 2007-2011 foru-legealdiaren hasieratik hiru urteko epe luzean egindako lanaren emaitza da. Aldi horren hasieran sortu zen, hain zuzen ere, Estrategia Bulegoa, Foru Aldundiaren barnean, pentsamendu estrategikoaren lurraldeko tradizio luzea errotzea xede izanik, horretarako epe laburrerako zein epe luzerako politikak integratuz.

Epe luzerako ikuspegia txertatzeak dakartzan zailtasunez jabetuta (lehenik eta behin, noski, foru-erakundeetan egin beharko litzateke) eta beste herrialde batzuetako esperientzietatik ikasi ostean, Estrategia Bulegoak Gipuzkoa+20 estrategia jarri zuen abian. Prozesu horretan, gogoetatik harago joan nahi izan du, eta ekintzara igaro, betiere erakundeen zein gizartearen ikaskuntza-prozesu gisa ulertuta. Ekimen horrek iraun duen bi urteetan, 2008ko maiatzetik 2010eko uztailera bitartean, taldeko ikaskuntza-ahalegin handia egin behar izan da, gaur egun-

go egoerak nola eragiten digun ulertzeko, eta lurralde garen aldetik sendotzeko nahiz etorkizuneko zalantza eta erronkei aurre egiteko prestatzeko zer egin dezakegun aztertzeko. Epe horretan, gainera, elkarbideak jorratu dira, erakundeen arteko lankidetzaren eta lurraldeko eragile publiko zein pribatuen elkarrekiko aintzatespenaren bidez, etorkizunari aurre egiteko esparru bateratuaren beharrari dagokionez.

Agindutako ardurei erantzunez, Bulego Estrategikoak aurreikusten du epe luzeko estrategiari urteroko jarraipena egitea adierazle eta estrategia zainketa sistemen bidez. Ebaluaketa hau G+20 strategiaren “etorkizuneko txosten” batean bilduko da.

G+20 prozesua hiru fase nagusitan garatu da, eta hiru dokumentu<sup>2</sup> landu dira:

- **I. Diagnostiko Estrategikoa.**
- **II. Gipuzkoa 2030 erronka-eszenatokiaren oinarriak.**
- **III. I. Gipuzkoa 2020-2030 Estrategia.**

Parte-hartzean eta alderaketan oinarritutako prozesua izan da, zabala eta deszentralizatua, eta hainbat esparru eta organo instituzional zein sozialen sare baten bidez egituratu da. Estrategia Bulegoaren parte hartzeko proposamenak gizartearen heldutasunaren aintzatespena eta harekiko konfiantza izan ditu oinarri; izan ere, antolatutako gizarte-kapitalean aurrera egin da urteetan zehar; horregatik, jada eratuta zeuden parte hartzeko eta lankidetzarako esparruetara jo da, bai sektore-mailakoak, bai lurralde-mailakoak. Lan-esparru horiez gain,

<sup>1</sup>32/2008 Foru Dekretua (GAO 2008-05-30), lehen diputatu nagusiordearen mendeko Gipuzkoako Estrategia Bulegoaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa.

<sup>2</sup>Dokumentu guztiak helbide honetan aurki daitezke: <http://www.estrategiag20.net>.

Foru Aldundiko beste batzuek ere parte hartu dute, Batzar Nagusien barnean (berariaz horretarako sortutako organo iraunkor baten bidez: Etorkizunerako Batzordea), bai eta G+20 kontseiluak ere, prozesuaren aholkularitza-organo gisa.

Lerro hauen bidez, gure eskerrik beroena adierazi nahi diegu G+20 prozesuan modu aktiboan eta ilusioz parte hartu duten pertsona guztiei.

Eskerrik asko

## 2 ESTRATEGIAREN HELBURUAK

Estrategiak Foru Aldundiaren hurrengo legealdietarako politika publikoentzako inspirazio-iturri izan nahi du, bai eta, horrekin lotuta, Euskadiko erakunde orokorretatik sortzen direnentzat ere. Gainera, Gipuzkoako gizarte-eragileentzako gida izatea lortu nahi du, hurrengo urteetarako ekintzak eta proposamenak zehaztean. Beraz, abiapuntua da, helmuga baino gehiago. Estrategia honen bizitza eta Bulegoak sustatutako dinamika estrategikoaren balioa une honetatik aurrera hastera doaz.

Dokumentuan, Lurralde Historikorako estrategia-proposamen bat aurkezten da, bai epe ertainerako (2020), bai epe luzerako (2030). Hurrengo bi hamarkadetak, hainbat aldaketa proposatzen ditu: ekonomikoak, sozialak, ingurumen-aldaketak, hezkuntzakoak, eta lurralde-zein erakunde-antolamenduari dagozkionak. Hori guztia, oparotasun-olde berriak sortzea eta gizarte-ongizatea xede izanik, bertiere garapen iraunkorraren ereduak sustatuz. Estrategia krisi ekonomiko latz baten testuin-

guruan adierazteak aukera bat dakar: izan ere, krisi-garaietan ikuspegiak zabaldu egiten dira, eta egoera-aldaketek bide ematen dute aurreko premisak berriro aztertzeke, lehenago proposatutako erantzunak jada ez baitira baliagarriak.

Ikuspegi bateratuak eta parte-hartzean eta alderaketan oinarritutako prozesu zabal baten bidez jorratutako etorkizunerako estrategiak bide ematen dute Gipuzkoa gizarte hobea izateko: sendoagoa eta malguagoa, hobeto egokitzen dena eta erronkei aurre egiteko hobeto prestatuta dagoena. Etorkizuna berez da ezezaguna; baina haren egituraketa moldatzen duten joerak ezagut daitezke, baita aztertu ere. Horrela, gizartea hobeto prestatzen da, eta erresilientzia handiagoa garatzen du; gizarte-adimena bizkorragoa bihurtzen da, zorrotzagoa. Eta halaberrez hausturak sortzen direnean, edota bat-bateko aldaketak, teknologikoak, ekonomikoak, ingurumenekoak, energetikoak, kulturalak... gizartea hobeto prestatuta dago.

Estrategia horretan, lehenik eta behin, errealitatearen egitura eratzten ari diren joera nagusiak laburbildu dira: ekonomiaren globalizazioa, trantsizio demografikoa, klima-aldaketa eta petrolio-erazketak goia jo izana, IKTen iraultza eta unibertso birtual berria, potentzia berriak eta mapa geopolitikoan izandako aldaketak. Mundua etengabe ari da aldatzen, eta guk geure lekua bilatu behar dugu. Izan ere, koordenatu berriak ditugu, eta horrek berekin dakar errealitateari beste modu batean begiratzea; hau da, ikuspegi berri bat landu behar dugu, eta horretarantz eramango gaituen estrategia antolatu.

Proposatzen dugun ikuspegi horretan, Gipuzkoa bakean bizi da, ETaren indarkeria

amaitu da, eta gizarteak bere zauriak zaintzen eta sendatzen ditu, umiltasunez. Guztion xedea: inoiz ez berriro gure izenean. Aldi berean, bere antzinako kulturen irrimo errotutako gizarteak da: kultura hori zaintzen, aberasten eta biziberritzen du, eta hartatik zabaltzen da mundu zabalera. Pertsona beti lehentasuntzat duen komunitatea da. Gizarte-kohesio sendoa da, eta hori gure kode genetikoaren identitate-zeinua da. Ekonomia iraunkorra da, irekia eta lehiakorra, ezagutzen eta berrikuntzan oinarritua. Genero-berdintasunaren alde irmotasunez egiten duen gizarteak da. Garapen ekonomikoaren eta naturaren zaintza eta babesaren arteko aurkakotasuna gainditu du. Gure helburu den Gipuzkoa gizarte irekia da, bide ematen duena pertsona bakoitzak bere bizitzako proiektua eta bere ametsak askatasunez aurrera eramateko, norberaren zioritasun berritasunaz lortzeko.

Ikuspegi honetara bideratzeko, estrategia honek sei bide proposatzen ditu, sei aldaketa; gure lurraldeko ibaien izenak jarri dizkiegu: trantsizio ekonomikoa, ekonomia global berria lehiakorrek izateko; trantsizio demografiko-soziala, zahartze-prozesuaren erronka eraginkortasunez kudeatzeko eta ongizate-estatuaren bideragarritasun finantzarioa bermatzeko; hezkuntza- eta prestakuntza-trantsizioa, gure ikerketaren bidez jakintza-mailarik goreneratz egiteko; energia-arloko, lurralde-antolamenduko eta ingurumen-arloko trantsizioa, iraunkortasunaren aldeko apustuaren adierazle; erakundeetako trantsizioa zein balioena, gure erakunde-sarea modernizatzeko eta gizarte-kapitala sendotzeko; eta bakearen lorpen historikoa.

Lurralde Historikoan aldaketa horiek bideratzeko aitzindaritzak politikoa foru-erakundeei dagokie: Foru Aldundiari berari eta Batzar Nagusiei. Haien bilatu behar dute gizarte zibilarekin zein Euskadiko erakunde orokorrekin kidesunak sortzeko eta aurrera eramateko moduak, betiere aitzindaritzak partekatua eta esparru publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak sistematikoak oinarri hartuta.

### 3 BIZILEKU DUGUN MUNDUAREN KONPLEXUTASUNA ETA ERRONKAK ULERTZE ALDERA

Gipuzkoak, Euskadi osoak bezala, bere buruz gogoeta egin behar du berriro, eta bere lekua zehaztu, eraldaketa erabatekoa eta sakona sortzen ari diren koordinatu global berrien testuinguruan.

Bizileku dugun munduan aldaketa-prozesu itzelak ari dira gertatzen: sozialak, ekonomikoak, ingurumenekoak, teknologikoak eta geopolitikoak. 2030era bitartean, egun ezagutzen eta aurreikusten ez ditugun beste aldaketa batzuk ere gertatuko dira, eta ordurako, mundua 2010ean ezagutzen dugunaz oso bestelakoa izango da.

Etorkizuna, berez, ezezaguna da, eta ezin daiteke aurreikusi. Hala ere, gaur egungo indar eta hedadura handiko joera batzuk aztertuta, zentzuz pentsa daiteke eragin era-

bakigarria izango dutela etorkizunaren egituraketan, hamarkada bat edo bi barru. Gure Lurralde Historikoaren epe ertaineko (2020) zein epe luzeko (2030) etorkizunari buruzko gogoeta estrategikoa egitean, ez da beharrezkoa dauden joera guztiak kontuan hartzea; aitzitik, errealitatea egituratzeko gaitasun handiena duten indar-lerroak hautatu behar dira, ziur asko eragina izango baitute Gipuzkoaren etorkizunaren moldaketan. Etorkizunean, Gipuzkoak parte hartu, lehiatu eta izan egin beharko du. Estrategia zehaztean, gaur egungo mundua egituratzen duten bost joera handi hartu dira aintzat, eragin handia baitute gure etorkizunean:

### ■ **Ekonomiaren globalizazioa.**

Gaur egun, gizakiaren historian inoiz gertatu ez bezalako aldaketak ari dira gertatzen, munduko ekonomiaren modernizazio-prozesuarekin batera; izan ere, inbertsioak, teknologiak, ezagutzak eta informazioa herrialde batzuetatik beste batzuetara eramaten dira, eta horrek aurreko garaietako egoerarekiko jauzi kualitatiboa ekarri du. Ehunka mila enpresa, Beijingen, Shangain, Delhin, Bombayn, Sao Paulon, Mexikon, Jakartan, Lurmutur Hirian eta abarretan ezarriak, Japoniako, Europako eta Ipar Amerikako enpresekin batera ari dira lehian: aukerak bilatzen, merkatu-segmentuak baliatzen, ideiak sortzen, teknologiak garatzen... Horrela, ondasunen eta zerbitzuen ekoizpe nerako eta kontsumorako sare global handi bat eratu dute. Munduan ekoizten diren ondasunen eta zerbitzuen herena herrialde des-

berdinen arteko merkataritza-trukeetara bideratzen da.

Globalizazio-prozesu horrekin batera, kapitalen mugimenduak ia erabat hedatu dira nazioarteko esparrura; aldi berean, ordea, pertsonak oztopo izugarriak dituzte munduan zehar mugitzeko, garapen ekonomiko handieneko herrialdeek ezarritako migrazio-politikak direla-eta. Ekonomiaren globalizazio-prozesuak ekarri duen aldaketetako bat da enpresa nagusiek beren ikuspegi estrategikoa goitik behera aldatu dutela. Izan ere, laneskua eta kapitala eskuarki eskuragarriak direnez (egungo ekonomia- eta finantza-krisiak eragindako kredituak lortzeko zailtasunak salbuetsita), bestelako jomuga batzuk dituzte: talentua balioesten dute, eta merkatuan iraultza eragiteko gaitasuna izango duten ideia berritzaileak, bai eta ideia horiek gauzatzeko teknologiak ere. Bestalde, globalizazioak aukera ekonomikoak areagotu ditu, eta gizarte-klaseak gorabidean jarri ditu, erdiko klaseko gizatalde zabalak sortu direlarik. Datozen urteetan, Asiako, Latinoamerikako eta Ekialde Erdikoko ehunka milioi pertsonak ekonomia globaleko ondasun eta zerbitzuen eskari izugarria egingo dute; lehenago, ordea, Mendebaldeko pertsonak eta familiek soilik zituzten eskuragarri.

Ekonomiaren globalizazioa neurri handi batean Estatu-nazioaren esparrua gainditu duen prozesua da. Esparru hori oraindik ere oinarritzko erreferentzia da botere politikoaren eta militarren egituraketan, baina estatuek zeharka soilik kudeatu dute ekonomiaren glo-

balizazio-prozesua. Izan ere, merkatuaren beraren dinamikak inposatu du prozesuaren logika eta erritmoa, eta Estatu-nazioek ez dituzte fenomeno horren funtsezko alderdiak kudeatu; bat-batekotasunez jokatu baino ez dute egin.

### ■ Biztanleriaren zahartzea joera demografiko den aldetik.

Prozesu hori jada gertatzen ari da ekonomia garatua duten herrialdeetan, bai eta, erritmo motelagoaz, gorabidean dauden herrialdeetan ere. Gainera, hurrengo hamar edo hogeiru urteetan, zahartze-prozesua areagotu egingo da. Joera demografiko horrek hiru osagai nagusi ditu:

**Lehenik**, pertsona askok erretiroa hartuko dute etorkizun hurbilean. 2020rako, gutxi gorabehera, dozenaka milioi pertsona erretiratzeko adinera iritsiko dira Mendebaldeko Europan, Estatu Batuetan eta Japonian; hain zuzen, Bigarren Mundu Gerraren (1939-1945) ostean izandako baby boomaren aldiaren jaiotakoak. Izan ere, 1950etik 1965era bitartean, oparotasun handiko aldia izan zen, etorkizunarekiko baikortasuna hedatu zen, eta familia nuklearraren eredia nagusitu zen; urte horietan, jaiotza asko eta asko izan ziren.

**Bigarrenik**, gaur egun herrialde horietan erretiroa hartzen duten pertsonak 20 urte gehiago bizi izaten dira batez beste; duela ez hainbeste, aldiz, denbora-tarte hori dezente laburragoa zen. Gaur egungo erretiratze-adinean eusten bazaie, 2020rako pertsonen erretiratu

osteko bizialdiak 20 urteko batez besteko hori gaindituko du.

**Azkenik**, data horretatik aurrera biztanleria aktibo gutxi egongo da biztanleria pasiboaren errentei eusteko. Izan ere, *baby boom*-aren garaian jaiotakoak erretiratu ostean lan-jardueran aktibo jarraitu beharko luketen pertsonak nahiko gutxi dira, 1970etik aurrera jaiotza-tasaren bilakaera erabat aldatu baitzen Mendebaldeko Europan, Estatu Batuetan eta Japonian.

### ■ Iraultza energetikoa eta klima-aldaketaren erronka.

Arlo horretan ere, hiru faktorek bat egiten dute:

**Lehenik**, klimaren beraren krisia; hots, klima-aldaketa. 2007an Klima-aldaketari buruzko Gobernuarteko Adituen Taldeak (IPCC) laugarren txostena aurkeztu ostean, inork ez du zalantzan jartzen arazo larri horri aurre egiteko neurriak hartu beharra. Hala ere, 2009ko abenduan Koppenhagen izandako goi-bileraren porrotak age-rian jarri zuen zailtasun handiak daudela adierazpen orokorretatik harago joan eta hitzarmen lotesleak zein nazioartean aplikatzeko neurri zehatzak adosteko. Nolanahi ere, arazoa hor dago, eta denborak aurrera egin ahala, larriagotzen ari da, berotegi-efektua eragiten duten gasen isurketak areagotzen ari baitira etengabe.

**Bigarrenik**, petrolioaren garestituzioa pixkana, desorekak sortu baitira eskaintzaren eta gero eta gehiago areagotzen ari den eskariaren ar-

tean; batez ere, Txinaren eta, neurri txikiagoan, Indiaren industrializazio-prozesuengatik. Energiaren Nazioarteko Agentziaren arabera (The World Energy Outlook, IEA, 2008), 2015etik aurrera petrolioaren prezioek hazkunde jarraitua izango dute.

**Azkenik**, hornikuntza fidagarria ziurtatzeko beharra, prezio lehiakorretan: energia-segurtasuna. Munduko 23 herrialdek petroliotik lortzen dituzte errenta ekonomiko gehienak; baina haietako ezein ez da demokrazia arduratsu bat. Ekialde Erdikoan daude munduko petrolio-erreserba nagusiak; batez ere, Saudi Arabian, Iranen eta Iraken. Errusia ere kontuan hartzekoa da, batez ere gas-hornikuntzari dagokionez; jakina da azken urteetan herrialde horrek botere geopolitiko lortzeko bitartekotzat baliatu dituela energia-baliabide horiek.

### ■ Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiai, Interneteko unibertso birtuala eta sareak.

Berrikuntza teknologikoek aldaketa soziala eta ekonomikoa bultzatu dute aldi berean. Aldaketa hori errotuta dago jada gure gizartean, baina etengabe aurrera doan prozesua da, arlo horretan berrikuntzak oso bizkor ari baitira sortzen, eta esparru guztietara hedatzen: gailu mugikorak; errealitate areagotuak eskaintzen dituen aukera berriak; sistema adimentsuagoetaranzko bilakaera, web semantikoaren bidez; ingurune-adimenezko sistemen orokortzea, eguneroko bizi-

modua errazteko; web sozialeko praktikak... Elementu horiek guztiak pertsonen arteko harremanak bideratzeko modua aldatzen ari dira, bai eta enpresa-proiektuak antolatzeke modua ere, gero eta banatuagoak eta zabalagoak baitira. Era berean, erabaki eta eztabaida publikoak bideratzeko prozesuak ere aldatuz doaz, herritarrek gaitasun eta autonomia handiagoa baitute parte hartzeko eta erakunde tradizionalen esparrutik kanpoko bitartekoak erabiliz beren iritzia adierazteko.

**Etorkizuneko Internet.** Sareak goitik behera aldatu ditu gure gizarteko alderdi asko azken 15 urteetan, baina haren ezaugarriak aldatuz joango dira datozen urteetan ere, oraindik aztertzen ari diren kontzeptuak eta teknologiak garatzearekin batera, eta horrek beste aldaketa batzuk ekarriko ditu: informazioa eskuratzeko bitartekoak zein nabigatzeko moduak aldatuko dira; aldaketak gertatuko dira garraibideetan eta azpiegituretan; zerbitzuen eta produktuen eskaintzan gero eta indibidualizazio eta segmentazio handiago bate-rantz joko da; ezagutza sortzeko eta hedatzeko moduetan funtsezko aldaketak gertatuko dira, eta horrek lan-esparru berriak sortuko ditu, bai eta ideiak eta ezagutza sortzeko ingurune berriak ere, banatuagoak izango baitira, eta horrek paradigma tradizionala aldatuko baitu. Sarea kontrolatzeko nahia etengabea da: herrialde ez-demokratikoetako gobernuek beren gizarte-kontrol zorrotzetan hutsuneak sortzakeen mehatxutzat dute sarea, baina beste joera politiko, sozial eta kultural jakin ba-

tzuek ere kontrol hori lortu nahi dute, beren *status quo*ari eusteko.

Bestalde, hainbat txostenek berronetsi dute eskualdeen lehiakortasun ekonomikoa oso lotuta dagoela teknologia-arloko joera hori aukera bihurtzeko gaitasunarekin. Joera horrek, dimentsio ekonomikoaz gain, gizarte-ohiturak eta -jokabideak aldatzeko ahalmen handia du. Esate baterako, konektibitate mugikorra zabaltzeak bide emango du edozein leku eta unetan konektatzeko, eta horrekin batera, lan-jarduerak zein harremanak nonahikoagoak bihurtuko dira. Hori kontuan hartuta, Gipuzkoan beharrezkoa da konektibitatearen eskuragarritasunean berdintasuna bermatzea, gizartean haustura digitalik sor ez dadin, horrek desberdintasunak ekarriko bailituzke ezagutzak bereganatzeko eta zerbitzu berriak nahiz sareak eskaintzen dituen bitartekoak baliatzeko aukeretan.

### ■ Munduko boterearen geopolitika aldakorra.

Aldaketa horren adierazle da 20en Taldea (G-20) munduan erreferentzia bihurtu izana. Talde horretan daude, herrialde garatu nagusiez gain, gorabidean dauden herrialdeak ere. Hain zuzen, G-20 izan da nazioarteko komunitateak abiatu duen koordinazio-mekanismoa, 2007-2010 aldiko krisi ekonomiko-finantzario larriari aurre egiteko. Aldiz, 7en Taldea (G-7), ekonomia garatuenerako Mendebaldeko herrialdeak biltzen zituena, bertan behera geratu da.

Azken urteetan, ekonomia- eta finantza-gune nagusia Mendebaldetik Ekialdera aldatu da, eta prozesu hori hasi baino ez da egin. Botere militarra oraindik ere erabat dago Estatu Batuen esku; baina bi gerratan ez dute garaipenik lortu (Iraken eta Afganistanen), eta horrez gain, Wall Streeten Gainbehera Handia gertatu da. Gertaera horiek direla-eta, aurreko estatubatuar administrazioak sustatutako aldebakarreko nagusitasunaren ilusioa ezerez-tuta geratu da.

Europar Batasuna, 27 estatuk osatzen dutena eta 500 milioi pertsona biltzen dituen, lehen mailako erreferentzia da gaur egun ekonomia, merkataritza-, teknologia-, zientzia- eta kultura-arloetan. Europar Batasunak nazioz haraindiko esperientzia arrakastatsua izan du, balioetan eta interesetan oinarritutako komunitatea eratuz, eta barnean hartzen dituen Estatu-nazioen esparrua gainditzen duen gobernu-ereduaren bidez. Ez da inoiz halakorik eratu mundu osoan. Hain zuzen, eredu hori ari dira hartzen erreferentziazat munduko eremu askotan, elkarganatze- eta bateratze-prozesuak abian jartzeko; esaterako, Latinoamerikan eta Asian.

Edonola ere, Europar Batasunak ez du oraindik lortu ekonomian eta merkataritzan duen garrantzi hori eragin eta botere global bihurtzea. Izan ere, azken bi hamarkadetan izandako aldaketekin batera, ez da aurrerapenik egin integrazio politiko eta ekonomikoan, ezta segurtasunaren integrazioan ere. Horregatik, gerta daiteke 2020-2030 aldirako Europa garrantzi gutxiagoko eragile bihurtzea mundu globalaren testuinguruan.

## 4

## ETORKIZUNA GURE BALIO BEREIZGARRIAK OINARRI HARTUTA ERAIKITZEA

Estrategia Bulegoak Gipuzkoari buruz proposatzen duen ikuspegia elementu nagusi hauez osatutako paisaia da:

### ■ **Lehenik, gizarte-kohesio sendoa. Pertsonak dira lehentasuna.**

Gizarte-kohesio sendoa duen eredu baten aldeko gure apustua beste eredu sozio-ekonomiko batzuk ez bezalakoa da, azken horien ikuspegiaren arabera gizarte-kohesioa lehiakortasunerako oztopo baita, eta ez baita aktibo gisa ulertzen. Gure apustuaren oinarri den gizarte-kohesioaren ereduak Lurraldearen beraren historian du jatorria, eta, aldi berean, Europako iparraldeko herrialdeetako esperientzien alderdi onuragarrienak biltzeko xedea du.

Eredu horrek berekin dakar erakunde publikoek erantzukizunez jokatzea, pertsonen ongizatea politika publikoen ardatz bihurtzeko, arlo guztietan; hezkuntzan, lan-munduan, osasunean, gizarte-arretan, etxebizitza-arloan... pertsonak dira oinarrizko erreferentzia. Politika publikoak ez dira gizarte-taldeentzat ezartzen, pertsonentzat baizik; hots, banakoa da, herritar-eskubideak dituen, erakundeen arreta jasotzen duena.

Kohesio handiko gizartearen funtsa da pertsonen ulertzea ez dagoela eskubiderik bete-

beharririk gabe; pertsonen, nor bere bizitzaren bilakaera askatasunez zuzentzeaz gain, gizartearen bilakaeraren erantzule ere badirela ulertzea. Halako pertsonen ez dute espero erakunde publikoek beren arazo guztiak konpontzea; aitzitik, erantzukizuna gizarteko kide guztiena dela onartuta, egoera bakoitzarentzat irtenbideak bilatzen ahalegintzen dira eta modu aktiboan ekiten diote. Beraz, proposatzen dugun gizarte-kohesioaren eredu ez da eredu subsidiatua, guztion erantzukizunean oinarritutako eredu baizik; ez du lekurik laguntzak jasotzeko zain daudenen jarrera pasiboarentzat; aitzitik, pertsonen autonomia eta erantzukizuna ditu ardatz.

Gipuzkoa, gizon eta emakume askeen lurraldea. Pertsona bakoitzari bere bizitzako proiektua aurrera eramateko aukera emango dion gizarte irekia. Eraiki nahi dugun Gipuzkoa, Estatu Batuetako konstituzio zaharrean jasota dagoen bezala, gizon eta emakumeen beren ametsak aurrera eramateko eta horrela norberaren zoriontasun besterenezina lortzeko aukera emango dien lurraldea da. Horrek esan nahi du kontuan izan behar dela pertsonen zoriontasuna lotuta dagoela hainbat alderdi ukiezin eta zenbatezinekin. Beraz, ez genioke beste gizarte batzuetan hartutako bideari jarraitu behar, alderdi materialean oparotasun handikoak eta alderdi teknologikoan oso garatuak izanik, depresio- eta suizidiotasa altuak izan baitituzte; besteak beste, komunitateko kideen arteko lotura afektiboak, enpatiazko jarrerak eta elkarrekiko laguntasuna ahulak edo hutsalak zirelako. Ez da hori gure eredu.

- **Bigarrenik, ekonomia irekia, oso lehiakorra, iraunkorra, berrikuntzan eta ezagutzan oinarritua, eta teknologia- eta industria-arloan goibidean dauden sektoreak, mundu osoan eskari handia dutenak eta balio erantsi handikoak direnak, ardatz izango dituen.**

Ekonomia aurreraturik gabe ez dago aukerarik ongizate-gizarte garatu bat eraikitzeko. 2009ko Gipuzkoako Diagnostiko Estrategikoan aipatzen denez, gure Lurralde Historikoaren egoera abiapuntu ona da ekonomia globalean eraginkortasunez lehiatzeko; nolahi ere, badira bideratu beharreko ahulgune batzuk. Abiapuntua ona da, Gipuzkoako industria-sarea, 150 urteko esperientziaren emaitza dena, gai izan delako irauteko, egokitzeko, berritzeko eta aurrera egiteko, zailtasun handiko egoerak gaindituta. Sei belaunaldiko enpresa-, teknologia- eta industria-esperientzia berme eta aktibo garrantzitsua da etorkizunari begira.

Alde horretatik, lurralde bateko eta gizarte bateko balio ekonomiko nagusia, enpresa modernoetan bezala, balio ukiezinak dira: lanerako kultura, jarrerak ekintzailea, proiektu berriak abiatzeko aurrerakia, kalitatearekiko grina, teknika berriak ikasteko eta teknologia berriak aplikatzeko gogoia, ezagutza berrien bilaketa...; azken finean, **mahukak jaso eta lanari ekiteko** espiritua. Horiek guztiak kultura-balioak dira, eta ezin industria-politikak ezin ditu erreplikatu. Lurzoruaren

eraketa bezalakoa da: belaunaldi asko behar dituen jalkitze-prozesua. Eta Gipuzkoak badu hori.

- **Hirugarrenik, naturaren eta bioaniztasunaren zaintza eta babesa bere barnean integratzen jakin duen garapeneredua. Ekonomiaren deskarbonizazioaren alde elkarlanean ari dena eta klima-aldaketaren eraginetara egokitzeko osoki prestatzen ari dena. Natura-ondarea erabat berreskuratzea xede duena, ibaietatik hasita. Biztanleriaren lurralde-banaketa orekatua zaintzen duena, arreta berezia eskainiz landa guneari.**

Ezinbestean garatu beharreko eredu ekonomikoak iraganean baino askoz eraginkorragoak izan behar du energiaren eta natura-baliabideen erabileran. Karbono gutxi sortuko duen gizarte baterantz goaz, bere natura-baliabideak, natura, bioaniztasuna eta paisaiak gero eta gehiago zaintzen eta balioesten dituen gizarte baterantz. Horrek esan nahi du oparotasuna sortzea eta oparotasunez bizitzea bateragarria egin behar dela naturaren zaintzarekin, guztiok, bai guk bai gure ondorengoek, aukera izan dezagun bizigarria eta gozagarria izango zaigun natura-ingurune bat edukitzeko.

- **Laugarrenik, bere kultura, euskal kultura, eta bereziki euskara,**

## iraunarazten, sendotzen eta loratzen jakin duen gizartea.

Globalizaziotik eratorritako errealitatearen egituraketa ez da inola ere homogenea. Aitzitik, merkatuen, teknologien eta finantzen integrazio-prozesuekin batera, kultura-aniztasuna sendotzen ari da.

Gure herrialdeak, etorkizunari begira, bertako kulturen sustraitutako ikuspegia izan behar du. Izan ere, herrialdearen identitate-sentimendua aktibo bat da, nahiz eta batzuek indarkeriazko proiektu totalitario baten zerbitzuan jarri duten. Izan ere, nor bere lurraldean, bere kulturen, errotzea, ez da bateraezina unibertsala denarantz erabat zabaltzearekin.

- **Bosgarrenik, gizonen eta emakumeen arteko erabateko berdintasuna lortu duen gizartea, XX. mendearen hasieran sortutako genero-berdintasunaren aldeko gizarte-mugimendua amaieraraino burutu duena.**

Gipuzkoako gizarteak etorkizunari begira sendotu beharreko indarretako bat emakumearen egoera hobetzea da: ordaindutako lan-jardueretan erabat sartzea, eta soldata-baldintzetan nahiz enpresetako ardurak hartzean erabateko berdintasuna bermatzea. Horrez gain, beharrezkoa da bi generoek erantzukizun bera hartzea beren gain seme-alabak eta adinekoak zaintzeko. Hain zuzen, aurrera begira, zerbitzu-

hornidura zabala beharko da erkidegoan amatasun-egoeretarako, egoera hori ez dadin oztopo izan aldi berean lan-jarduera aktibo eta gogobetegarria izateko. Alde horretatik, Europako iparraldeko herrialdeetako eredia erreferentzia da.

- **Azkenik, bakea lortu duen gizartea, ETaren indarkeria politikoren azpikultura oroitzapen huts bihurtu duena, oroitzapen mingarria izanik ere.**

Amesten dugun Gipuzkoa, noski, bakea lortu duen Gipuzkoa da. Iragan hurbilari ikuspegi kritiko mingarri behatzen diona, eta heldutasun etikoa eta emozionala lortuta, prest dagoena, pixkana-pixkana, indarkeriak gizartean utzitako zauri sakonak sendatzeko. Eta gizarte osoaren erabaki irmo eta sakona, halako izugarrikeriarik ez dadin berriro gertatu gure herrialdean.

- **Laburbilduz, Gipuzkoa iraunkorra, ekonomikoki oparoa, teknologikoki aurreratua, ekonomia globalean arrakastaz lehiatzeko gaitua. Gizarte-, komunitate- eta laguntasun-harremanen sare zabal baten gain eraikia, eta bakea, gizarte-kohesioa, eta naturaren, bioaniztasunaren nahiz lurraldearen zaintza eta babesa gizarte-egituraren aitzinaldean balio nagusitzat izango dituen.**

## 5 GIPUZKOA 2020-2030 ESTRATEGIAREN PROPOSAMENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Estrategia Bulegoak sei aldaketa handi proposatzen ditu. Gure Lurralde Historikoko sei ibaien izenak jarri dizkie, gure natura-ondarearen osagai baliotsu horren aintzatespenaren adierazle, duela mende askotatik gure ekonomiaren eta gizartearen garapenaren eta bilakaeraren lekuko izan baita. Sei aldaketa horiek osatzen dute estrategia honen muina.

Aldaketa horiek xehatze aldera, **diagnostiko-elementu** nagusiak zehaztu dira, aldaketa bakoitzaren nondik norakoak ulertzeko. Aldaketa-ildo horietako bakoitzean **2030erako helburu estrategiko** bat finkatu da, arlo horri dagozkion etorkizuneko Gipuzkoari buruzko ikuspegiari lotutako asmoak adierazten dituen; horrez gain, **2020rako helburu** batzuk definitu dira, 2030erako ezarritako helburu kualitatiboa lortzeko bidean politika publikoak bideratzeko gidatzat balia daitezten. Helburu horien funtsa zertan datzan argitze aldera, lanerako ildo jakin batzuk proposatu dira, lagungarriak izan daitezten aldaketa horiek burutzeko. Azkenik, aurrera eramateko **proiektu eta programa estrategiko** batzuk proposatu dira, bide emango dutenak Foru Aldundiaren ahaleginak noranzko egokian bideratzeko, hori erabakigarria izango baita gure Lurralde Historikoaren etorkizunerako. Laburbilduz, hauek dira estrategia-proposamen horren oinarriak:

**DEBA IBAIA. Aldaketa ekonomikoa.** Berrikuntzan eta ezagutzan oinarritutako ekonomia ireki, lehiakor eta iraunkor baterantz.

**UROLA IBAIA. Aldaketa demografiko-soziala.** Gizarte zaharrago bateranzko trantsizioa kudeatzea eta ongizate-gizartearen finantzaketa bermatzea.

**ORIA IBAIA. Ingurumenaren eta lurralde-antolamenduaren aldaketa.** Ingurumen-iraunkortasunerantz, etorkizuneko belaunaldiekiko konpromiso zintzoaren adierazle.

**URUMEA IBAIA. Ikaskuntzaren eta ezagutzaren aldaketa.** Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.

**OIARTZUN IBAIA. Esparru publiko-politikoaren aldaketa.** Administrazio publikoaren modernizazio integrale-rantz eta erakunde-egituraren arrazionalizazio handiago baterantz. Balio berrietan oinarritutako gobernatze modu berri bat.

**BIDASOA IBAIA.** ETAre indarkeriaren amaiera, bakearen lorpen historikoa. Euskal autogobernua sakontzea.

## ■ Aldaketa Ekonomikoa.

### > 2030erako helburu estrategikoa.

Gipuzkoatik Euskadiko ekonomiaren bultzada sustatzea eta prozesu horren aitzindaritzza hartzea, data horretan Euskadi per capita errenta handieneko Europako hamar eskualdeen artean egon dadin, eroste-ahalmenaren parekotasuna aintzat hartuta. Hori lortzeko, erabakigarria izango da nazioarteko merkatuetan oso lehiakortasun handia izango duen enpresa-sarea izatea, lurraldean tinko errotua, eta aukera zabalduko duena bere barnean langileek parte-hartze zabala izateko.

> **2020rako I. helburua.** BPGdren %4,5 I+G+i-ra bideratzea.

> **Proiektu estrategikoa.** Mugikortasun iraunkorra.

Auto Elektrikoaren Garapenerako Gipuzkoako Adimen Teknologikoaren Zentroa sortzea.

Etorkizuneko Trenari buruzko Ikerketarako eta Ezagutza Trukerako Institutua sortzea. Trenbide Polo Teknologiko-Industrialia sortzea.

> **I. programa Estrategikoa.** Energia berriagarriak.

> **II. programa Estrategikoa.** Gipuzkoa talentu zientifikoaren, teknologikoaren eta sormenezkoaren nazioarteko zirkuituan.

## ■ Aldaketa Demografiko-Soziala.

### > 2030erako Helburu Estrategikoa.

Gipuzkoan ongizate-gizartearen finantzaketa bermatzea. Trantsizio demografikoaren eragin zuzenena izan duten ongizate-estatu modernoaren hiru zutabeek -pentsio-sistema, osasun-sistema eta gizarte-sistema- finantzaketa egokia izango dutela ziurtatzea. Horretarako, beharrezko erreformak egingo dira aurretiaz, foru-gastua behar bezala bideratuko da, eta euskal administrazioen –Gobernua eta Foru Aldundiak- zerga bidezko sarreren banaketari buruzko eztabaida egingo da.

> **2020rako I. Helburua.** Lurralde Historikoko gizarte-**zerbitzuetara** erreferentzia diren Europako bost eskualdeetako BPGdren batez besteko ehunekoa bideratzea. Ehuneko horretan, administrazio publikoen zein gastu pribatuaren ekarpenak sartuko dira.

> **2020rako II. Helburua.** %75-eko lan-tasa lortzea.

> **2020rako III. Helburua.** Beharrezko neurriak hartzea, egungo krisi ekonomikoaren ondorioz ez dezan bere horretan iraun Gipuzkoako 16 eta 24 urte arteko gazteen sektoreko egiturazko langabeziak. 2020rako adin-tarte horretako pertsonen langabeziata tasa batez bestekoa baino altuagoa ez izatea.

> **2020rako IV. Helburua.** Gizonen eta emakumeen soldatetan %100-eko berdintasuna lortzea.

> **Programa Estrategikoa.** Zahartzearen artea. Adineko pertsonak, pertsona osasuntsuak, zoriontsuak, autonomoak...

> **Programa Estrategikoa.** Gizarte- eta osasun-sistema.

## ■ Ingurumenaren eta Lurralde-Antolamenduaren Aldaketa.

> **Energia.** 2030erako helburu estrategikoa. Modu ordenatuan eta jarrera proaktiboz sistema energetikoaren trantsizioa burutzea, erregai fosiletan erabat oinarritutako sistematik beste batera igaroz, energia berriztagarriak gaur egun baino askoz ere gehiago baliatuta. Ereduek energetiko berria, funtsekoa izango da aurrezteko, eraginkortasuna lortzea eta ekoizpena banatua izatea.

**2020rako helburua.** Euskadiko erakunde orokorrekin elkarlanean aritzea, bai Gipuzkoako bai Euskadiko baliabide energetikoen artean energia berriztagarriak ahalik gehiena izan daitezen, Europar Batasunak ezarritako helburuarekin bat. Aldi berean, ahalik eta eraginkortasun energetiko handiena lortzeko urratsak ematea.

> **Klima-Aldaketa.** 2050erako Helburu Estrategikoa. Gipuzkoak, bertako erakun-

deen bidez –Foru Aldundia eta Batzar Nagusiak- nahiz Euskadiko erakunde orokorren bidez –Gobernua eta Eusko Jaurlaritza, helburu hau duen politika energetiko-klimatikoa defendatuko du: 2050erako, BEGen isurpenak 1990ean baino %80 gutxiago izatea.

**2020rako helburua.** Gipuzkoatik berotegi-efektuko gasen murrizketa sustatzea eta prozesu horren aitzindaritzea hartzea, data horretarako Euskadin halako gasen isurpenak 1990ean baino %20 gutxiago izan daitezen gutxienez.

**Biztanleria eta Lurraldea. 2030erako Helburu Estrategikoa.** Lurralde Historikoko eskualdeen artean biztanleriaren banaketa homogeneoari eustea.

**2020rako Helburua.** Eskualde bakoitzak Gipuzkoako Lurralde Historiko osoarekiko duen biztanleriaren ehunekoari 2010ean bezalatsu eustea.

> **Pertsonen eta Salgaien Mugikortasuna. 2030erako Helburu Estrategikoa.** Pertsonen lanera zein eskolara joateko gehien erabilitako garraiobideak garraiobide publikoak –trena, metroa, tranbia eta autobusedota motorrik gabekoak –bizikleta edo oinez joatea- izatea. Salgaiak Gipuzkoara ekartzeko zein Lurralde Historikoan zehar garraiatzeko bitarteko nagusiak itsasontzia eta trena izatea.

**2020rako Helburua.** Bidaiarien banaketa modala berriro bideratzea, motorrik gabeko garraiobideak eta garraiobide ko-

lektiboak sustatuz, data horretarako lane-gunetan halako garraiobideak erabiliz bidaiariek batez beste egindako distantzia guztizkoaren %50 izan dadin (bidaia-riak/kilometro-tan neurtua).

> **Landa-eremua. 2030erako helburu estrategikoa.** Landa-ingurune bizia lortzea: bere identitatea duena, eta bertako biztanleen beharrei egokitutako zerbitzuak, ekipamenduak eta azpiegiturak dituen, Gipuzkoako gainerako biztanleek dituzten aukera berak bermatuta (landa-eremuko herriek bizileku-funtzioa soilik izan ez dezaten). Gipuzkoako gizartearen eta administrazioaren aintzatespena duena, funtzioaniztuna izateagatik, eta lehen sektorea oinarri duena, identitatearen garapenerako ardatz estrategikoa den aldetik.

**2020rako I. Helburua.** Nekazaritza-jardueraren (barnean hartzen ditu nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza) eta landa-eremuaren aintzatespena lortzea, bai eta inplikazioa ere, gizartearen zein politikagintzaren aldetik, alderdi estrategikoa baita Gipuzkoako gizarte osoarentzat.

**2020rako II. Helburua.** Lehen sektorea sendotzea, Gipuzkoako sektore estrategikoa den aldetik, eta BPGdren %1,5 izan dadin lortzea (une honetan %0,7 da), bai eta nekazaritza-aktibo nagusiak nekazari gazteak izatea eta eredia familiako nekazaritza estentsioa izatea ere, aintzat hartuta errentagarritasuna handitzeak

berekin dakarrela produktuaren balio-katean nekazariaren balio espezifikoa garrantzi handiagoa ematea.

**2020rako III. Helburua.** Landa-eremuko biztanle guztiek konexio telematiko on bat eskuragarri izatea, Gipuzkoako gainerako lekuetan bezalako kalitatea eta prestazioak dituen.

**Programa Estrategikoa: Gipuzkoako ibaien lehengoratze integrala.**

## ■ Ikaskuntzaren eta Ezagutzaren Aldaketa.

> **2030erako Helburu Estrategikoa:** "Gipuzkoa, Ikasten duen Lurraldea" xedea errealitate bihurtzea, gizartearen gehiengo zabalak parte har dezan bizitzan zehar ikaskuntzan, ezagutzan eta berrikuntzan, funtsezko alderdiak baitira gizarte inklusioa eta dinamikoa eraikitze eta ekonomia lehiakorra izateko.

> **2020rako I. helburua.** Bizialdi osoko ikaskuntza sustatzea: Gipuzkoan bi pertsona heldutik batek (25 eta 74 urte artekoak) ikas dezan lortzea; gaur egun hirutik batek ikasten du.

> **2020rako II. helburua.** Bizitza osoan zehar ikasten jarraitu ahal izateko abiapuntua hobetzea: eskola oso gaztetan uzten dutenen ehunekoa egungo %15etik %5era murriztea; horren antzeko ehunekoa dute Europako herrialderik aurreratuenek arlo horretan.

> **2020rako III. helburua.** Ikaskuntzarako, ezagutzarako eta berrikuntzarako esparruak sortzea: Gipuzkoa nazioartean entzutetsu bihurtzea, ikerkuntza-bikaintasunagatik.

### ■ **Esparru Publiko-Politikoaren Aldaketa.**

#### > **2030erako Helburu Estrategikoa.**

Gipuzkoako erakunde publikoak gobernatzeko moduan aldaketa sakona egitea, apustu irmoa eginez gobernatze modu ireki baten alde, harremanetan oinarrituko dena –erakundeen artekoak zein esparru publikoaren eta pribatuaren artekoak-, gardena izango dena, parte-hartzea sustatuko duena eta erabat bideratuko dena herritarrak zerbitzatzeko.

> **2020rako I. Helburua.** Gipuzkoako Lurralde Historikoko erakundeen zein Euskadiko erakunde orokorren egituraketaren arrazionalizazio handiagoa sustatzea, betiere adostasunean oinarrituta.

> **2020rako II. Helburuak.** Klase politikoak eta Lurralde Historikoko erakundeek iraganen gizartean izandako prestigioa eta aintzatespena berreskuratzea.

> **2020rako III. Helburua.** Administrazio publikoen barneko kultura aldatzea, sailetako zuzendaritza-mailen profesionalizazioa sustatuz, eta bertan lan egiten duten pertsonen esperientzia eta adituen ezagutzak sistematikoki baliotsiz, eta gizarteko arazo garrantzitsuenak

konpontzeko zeharkakotasun-ikuspegia lehenestea eta funtzioak betetzera ez mugatzea; hori guztia, pertsonen zein gizartearen oro har emandako arreta hobetzeko.

> **Programa Estrategikoa:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko eta Euskadiko Erakunde Sistema Modernizatzeari eta Arrazionalizatzeari buruzko Azterketak eta Proposamenak.

### ■ **Indarkeria Politikoa Amaiaraztea. Bakearen Lorpen Historikoa. Euskal Autogobernuan sakontzea.**